



342/2015 Ebazpena, 2015eko urriaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez agintzen da argitaratu behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian 1. Lehentasuneko eta 2. Lehentasuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modura (Aldi baterako kontratazio zerrendak 2014), Teknikari espezialisten lanbide dagozkion kategoria hauetarako: Administraria, Osasun-Dokumentazioko Teknikaria, Erradiodiagnostikoko Teknikaria, Erradioterapiako Teknikaria eta Informatikako Teknikaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategoriatarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategoriatarako.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,

### EBATZI DUT

**Lehena.-** Agindua ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian hauek argitaratzeko: 1. Lehentasuneko eta 2. Lehentasuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modura, Teknikari espezialisten lanbide dagozkion kategoria hauetarako: Administraria, Osasun-Dokumentazioko Teknikaria, Erradiodiagnostikoko Teknikaria, Erradioterapiako Teknikaria eta Informatikako Teknikaria.

Zerrenda horiek indarrean sartuko dira 2015eko azaroaren 10ean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 28an



Jose Maria Armarina Macazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

Iz. ~~Jose Maria Armarina Macazaga~~

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA EUSKO JAURLARITZA



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD